*UDAL TITULARITATEKO BASO PISTA ETA BIDEEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.*

HITZAURREA.

Azken urteotan baso pista eta baserri bideak egokitzeko udalerrian egin izan diren inbertsioen multzo garrantzitsuak arautegi bat ezartzeko premia eragiten du, guztiok bertatik ibiltzeko dugun eskubidea murriztu gabe, berauen erabilpen desegokia edo neurriz kanpokoa eta zoruaren ondoriozko hondamena gutxitu dadin.

Bide hauek egokitu zirenetik igarotako denboraldiak Korporazioari erakutsi dio herri jabetzako ondasun hauen erabilpen indiskriminatu eta arduragabea ekidingo lukeen araudi ezak zer nolako ondorioak dakartzan.

Piskanaka egoera hau konpontzeko asmoz, eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Legean eta berau garatzen duten Ondasun eta Zerbitzuen Erregelamenduetan bildutako aurreikuspenen babesean, honako araudi hau ezartzen da.

1. Artikulua.

Ordenantza honen xedea Udal titulartasuneko nahiz erabilera publikoko bideen erabilpen bereziaren arauketa da, herri erabilerako ondasunekin zerikusia duten gaietan Udalari egotzitako konpetentziak erabiliz.

Naiz Udal titularitatekoak ez izan,

*ORDENANZA QUE REGULA LAS BASES PARA LA UTILIZACIÓN ESPECIAL DE PISTAS FORESTALES Y CAMINOS DE TITULARIDAD MUNICIPAL.*

PREÁMBULO.

El importante conjunto de inversiones que durante los últimos años se han venido realizando en el municipio para habilitar pistas forestales y acondicionar caminos de titularidad municipal, induce a implantar una normativa que sin mermar los derechos que todos gozan para transitar frene el uso inadecuado o desproporcionado de los mismos y el consiguiente deterioro de los firmes.

El periodo transcurrido desde la fecha en que estas vías se acondicionaron ha servido para que la Corporación conozca los resultados que se derivan de la inexistencia de una normativa que impida el uso indiscriminado y negligente de estos bienes de dominio público.

En orden a reducir y eliminar paulatinamente esta situación, y al amparo de las previsiones contenidas en la Ley de Bases de Régimen Local y en los Reglamentos de Bienes y Servicios, que la desarrollan, se establece la presente normativa.

Artículo 1.

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de la utilización especial de las pistas forestales y caminos de titularidad municipal en el ejercicio de las competencias atribuidas al Ayuntamiento en materias relacionadas con los bienes de dominio público.

Aun no siendo de titularidad munici-

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

azken urteotan administrazio publikoek emandako laguntza garrantzitsuari esker konpondu eta hobeagotu diren bide eta pistak erabilera publikokoak izanik, Udalak badu gaitasuna erabilera hori arautzeko.

2. Artikulua.

Udal jabetzakoak diren era eta maila guztietako pista eta bideek herri-jabetzako ondasuna osatzen dute.

3. Artikulua.

Berauen titularra edo Benetako Eskubidea duen heinean, Udalari dagokio herri jabetzako erabilpenen plangintza eta arauketa Ondasunen Erreglamenduaren 75. artikuluak aurrikusten duenaren arabera.

4. Artikulua.

Erabilera librea izanik, landabideek nolako ezaugarriak dituzten ikusita eta ingurunea babestu arren, ibilgailuekin erabili ahal izateko hurrengo arau orokorrak ezartzen dira:

4.1 Debekatuta dago ibilgailu hauek pasatzea: Oruga ibilgailuak, gurpiletan kateak eta antzekoak dituztenak, arrastrekoak zoruaren gainetik edota errodadura bandakoak, 20 Tm.tik gorakoak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.

4.2 Landa kamioiaren erabilera orokorrerako hurrengo mugapenak ezartzen dira: Gehienezko abiadura 30 Km/ordukoa eta gehienezko zama 20 Tm.

4.3 Debekatuta dago bidean dagoen azken baserritik aurrera motoredun ibilgailuekin denborapasakoetan ibiltzea, hala nola: Ehizera, motorrean edo autoan ibiltzera, pe-

pal, ya que las pistas y caminos que en estos últimos años han sido arreglados y mejorados gracias a las importantes ayudas concedidas por las Administraciones Públicas son de uso público, el Ayuntamiento tiene competencia para regular dicho uso.

Artículo 2.

Las pistas y los caminos, de cualquier clase y rango, de titularidad municipal, constituyen un bien de dominio público.

Artículo 3.

Corresponde al Ayuntamiento, en su calidad de titular de los mismos, la planificación y regulación de los usos de dominio público en los términos que previene el artículo 75 del Reglamento de Bienes.

Artículo 4.

Siendo su uso libre, sin embargo teniendo en cuenta las características del camino rural y a fin de proteger el medio ambiente, se establecen las siguientes normas generales para el uso de vehículos en los mismos:

4.1. Está prohibido el paso de los siguientes vehículos: Vehículos oruga, vehículos con cadenas o similares, los de arrastre sobre el pavimento o de banda de rodadura, los que superen 20 Tm. y camiones de más de tres ejes.

4.2. Se establecen las siguientes limitaciones para el uso general de camiones: Velocidad máxima 30 Km./h y carga máxima 20 Tm.

4.3. Está prohibido a partir del último caserío que se encuentra en el camino el uso de vehículos a motor con fines ociosos, esto es: Caza, conducción de motos o coches, re-

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

rretxiku biltzera eta abarrera.

4.4 Salbuespenak daude iharduketa berezi eta puntualeko ezinbesteko kasuetarako, horretarako dagokion baimena lortu beharko dutelarik.

5. Artikulua.

Lehen esandakoaren arren, Udalak baimena eman dezake landabidearen erabilera berezirako, 20 eta 26 Tm. bitarteko zama duten ibilgailuekin egur ateraketa edo lantegietako materialen garraioetarako, hala nola, motoredun ibilgailuekin azken baserritik aurrera pasatzeko ere kasu berezi batzuetan.

LIZENTZIA ESKURATZEKO DERRIGORTASUNA

6. Artikulua.

Derrigorrezkoa da lizentzia eskuratzea aurreko artikuluan ikusitako erabileretarako ihardunean hasi aurretik.

7. Artikulua.

Dagokion lizentzia Udalari zuzendutako idazkiaren bitartez eskatuko da, ibilbide nagusia eta beste aukera batzuk, kasua balitz, argi eta garbi adieraziz, ekintzaren erabilera, zenbatekoa eta garrantzia jakitearren, baita zenbat iraungo duen eta orohar beharrezko informaziorako funtsezkotzat jotzen diren argibide guztiak, promotoreak edo behar bezala identifikatutako ordezkariak izenpetuta.

8. Artikulua.

Eskaria beharrezko baldintzekin aur-

cogida de setas, etcétera.

4.4. Existen excepciones para los casos de actividades especiales y puntuales, para las que deberán obtener la oportuna licencia.

Artículo 5.

No obstante lo anterior, el Ayuntamiento podrá otorgar licencias para usos especiales de los caminos rurales, para la extracción de madera por vehículos de entre 20 y 26 Tm. de carga o para el transporte de materiales para fábricas, así como para circular con vehículos a motor a partir del último caserío en adelante también en casos especiales.

OBLIGACIÓN DE OBTENER LA AUTORIZACIÓN

Artículo 6.

Es preceptivo la obtención de autorización con anterioridad al inicio de la actividad que prevea cualquiera de los supuestos detallados en la disposición anterior.

Artículo 7.

Se solicitará la licencia mediante escrito dirigido al Ayuntamiento, indicando claramente el itinerario principal y alternativas, si procede, al objeto de la utilización, cuantía y envergadura de la operación, duración que se prevé y en general aquellos datos que se consideren de necesaria información, firmado por el promotor o su representante legal debidamente justificado.

Artículo 8.

Presentada la solicitud en forma con

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

kezturik, tramitera onarturik eta, kasua balitz, kasuaz ari den batzorde berriemailearen informea entzunik, lizentzia eman edo ukatu egingo da aurkezten denetik luze jota ere hilabeteko epean.

9. Artikulua.

Lizentziarekin batera erabilpenerako baldintza orokorrak eta kasu bakoitzari bereziko dagozkionak adieraziko dira, guzti horiek nahitaez betebeharrekoak izango direlarik. Lizentziarekin hirugarrengo bat kaltetzen ez dela ulertuko da eta lizentzia berak ez du kasu bakoitzean arauzko beste baimenak lortu beharraz salbuesten.

10. Artikulua.

Lizentziaren eskatzaileak berme fidantza bat utziko du derrigorrez, iharduera bitartean sor litezkeen kalteez erantzungo duena.

FIDANTZA UZTEA.

11. Artikulua.

Lizentziari atxikitako egungo iharduera nagusia egur ateratzea denez gero, lizentzia eskariarekin batera Gipuzkoako Foru Diputazioko Basozaintza Zerbitzuak burututako baimen eta neurketa orria joango da, eta egingo diren joan-etorrien gutxi gora beherako kalkulua.

12. Artikulua.

1998rako fiantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:

los requisitos exigidos, admitidos a trámite y oídos en su caso el informe de la comisión informativa que se encarga del caso, se concederá o denegará la licencia en un plazo no superior a un mes desde su presentación.

Artículo 9.

Con la licencia se expresarán las condiciones generales de uso así como aquellas otras particulares del caso, que serán en todo momento de obligado cumplimiento. Dicha licencia se entenderá sin perjuicio de tercero y no eximiendo de la obtención de otras licencias preceptivas en su caso.

Artículo 10.

El solicitante de la licencia y con carácter preceptivo deberá depositar en fianza de garantía que responderá de los daños que se pudiesen ocasionar en el ejercicio de la actividad.

DEPÓSITO DE LA FIANZA.

Artículo 11.

Siendo en el momento presente la actividad principal tipificada sujeta a licencia, a la solicitud para realizar la saca de madera se acompañará la autorización y medición efectuada por el Servicio de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, incluyendo un cálculo estimado de la madera a extraer.

Artículo 12.

La cantidad establecida para 1998 se determinará en base a la siguiente escala:

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

| Bidearen luzera | Fiantza |
|---|---|
| Km. bateraino | 225 pzta./est. edo 340 pzta / tona. |
| Km. batetik bi km. raino | 325 pzta./est. edo 490 pzta/tona. |
| Bi km. baino gehiago | 375 pzta./est. edo 570 pzta/tona. |

Gutxiengo fiantza, edozein kasuetan 100.000 pezetatakoa izango da.

Kopuru hau urtero, "K.P.I."aren arabera eguneratuko da. Eguneratze hori egiteko ahalmena ematen zaio Alkate Jaunari urte bakoitzaren hasieran Dekretu bidez egin dezan.

13. Artikulua

Fidantzaren kopurua ezarri ondoren eta iharduerari ekin aurretik, Udal kutxan sartuko da eskudirutan edo abal, titulu edo indarrean dagoen araudiak onartzen duen beste edozein bide erabiliz.

FIDANTZAREN ITZULKETA

14. Artikulua

Ordaindutako fidantzaren itzulketa eskatzeko Udalari idazki bat bidali beharko zaio, lanak burutu direla eta hala bada, sortutako kalteak adieraziz.

15. Artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako idazkia aurkezten denetik hilabeteko epean, batzorde berriemailearen informea ikusirik, Alkateak erabakiko du fidantzaren itzulketa, hala badagokio, edota lizentziaren jabeari jakineraziko zaio zer konponketa burutu

| Longitud del camino | Fianza |
|---|---|
| Hasta 1 Km. | 225 ptas./est. ó 340 ptas./tonelada. |
| De 1 a 2 Km. | 325 ptas./est. ó 490 ptas./tonelada. |
| Más de 2 Km. | 375 ptas./est. ó 570 ptas./tonelada. |

La fianza mínima, en cualquier caso, será de 100.000,- pesetas.

Esta cantidad será renovada anualmente en base al "I.P.C.". Se faculta al Sr. Alcalde para que realice esta actualización a primeros de cada año mediante Decreto.

Artículo 13.

Una vez determinada la cuantía de la fianza, y con anterioridad al inicio de la actividad, se depositará aquélla en la Caja de la Corporación en metálico, aval, títulos o cualquiera otra de las formas admitida por la reglamentación vigente.

DEVOLUCIÓN DE LA FIANZA.

Artículo 14.

La devolución de la fianza se instará mediante escrito dirigido al Ayuntamiento detallando que los trabajos han quedado finalizados así como, en su caso, los daños que se hubieren causado.

Artículo 15.

En el plazo de un mes a partir de la presentación del escrito citado en el artículo anterior, y visto el informe de la comisión informativa, el Alcalde resolverá accediendo a la devolución o requiriendo al titular de la licencia para que ejecute las reparaciones

PAPER EKOLOGIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

behar duen. Jakinerazpena egin eta hilabeteko epean beharrezko konponketak burutu ez badira, Udalak, indarrean dagoen Prozedura Administratiboaren Legeak, exekuzio subsidiarioari buruz dionaren arabera ekingo du.

16. Artikulua.

Baldin eta utzitako fidantza, zuzenean edota zeharka sortutako kalteen konponketa gastuak estaltzeko hain ez balitz, Udalak ondoriozko erantzunkizunak eskatuko ditu, li-zentziaren jabearen aurka beharrezko lege neurriak hartuz.

TASAREN ORDAINKETA

17. Artikulua.

Ordainarazteko gai izango da udal-titularitate publikoko mendibideak, egur ateraketa eta beste edozein garraio mota, bai harrobietako, buztin, mehatztegietakoa, e.a erabiliak direnean.

18. Artikulua.

Tasa ordaintzera behartua dago, erabilera amankomun bereziko Udal-lizentzia eskatzen duena eta, nolanahi ere, erabilera amankomun berezia egiten duena.

19. Artikulua.

Tasa ordaintzeak ez du Fidantzak edo abalak ezartzeko obligaziotik libratzen, Ordenantza honen 12 artikuluan espreski erregulatua dagoenez.

BIDEEN KONTSERBAZIOA

precisas. Transcurrido otro mes desde que le fue notificada la resolución sin realizarse éstas, el Ayuntamiento procederá en los términos que previene la vigente Ley de Procedimiento Administrativo en cuanto a la ejecución subsidiaria.

Artículo 16.

En el supuesto de que la fianza presentada no llegase a cubrir la totalidad de los gastos de reparación de los daños causados, directa o indirectamente, el Ayuntamiento exigirá la responsabilidad derivada adoptando las medidas legales necesarias contra el titular de la licencia.

ABONO DE LA TASA.

Artículo 17.

Deberá abonarse la tasa cuando se usen las pistas y caminos forestales de titularidad pública municipal para la extracción de madera y para cualquier otro tipo de transporte, como por ejemplo de canteras, minas, etc.

Artículo 18.

Está obligado a abonar la tasa aquel que solicite licencia para la utilización especial en común y, en todo caso, quien realice una utilización especial en común.

Artículo 19.

El abono de la tasa no exime de la obligación del depósito de fianza o aval, tal y como se regula expresamente en el artículo 12 de esta Ordenanza.

CONSERVACIÓN DE LOS CAMINOS.

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

20. Artikulua.

Udalak urtero ikuskatuko du bidea zein egoeratan dagoen, eta doakionen utzikeri eta arduragabekeriaren ondorioz narriadurarik atzemango balu, konponketarako laguntzarik ez ematea ebatzi ahal izango du, baldin eta bidea lehengo egoera normalean jartzen ez den.

21. Artikulua.

Auzolana erabiliko da bideen kontserbazio erregularrerako. Horretarako Udalak beharrezko materiala jarri beharko du (harri, ormigoi, hodi, todo-uno eta antzekoak) eta erabiltzaile onuradunek, lan amankomuna.

22. Artikulua.

Norbaitek auzolanean ezingo balu parte hartu, ordezkatzaileren bat jarri beharko luke, edo bestela egun bakoitzeko 3.000,- pta. ordaindu. Modu honetan bildutako diruak, bideak sortarazten dituen gastuak ordaintzeko fondo amankomuna osatuko du.

23. Artikulua.

Udalak, bidearen erabiltzaile onuradunen artean eta Udalaren artean bitartekari lana egingo duen pertsona bat izendatuko du.

24. Artikulua.

Aurrez erabakitzen den hilean, erabiltzaile onuradunek, urtero, beraien hiru ordezkari izango direnak izendatuko dituzte. Gertatutako guztia eta sortzen diren arazoak udal bitartekariari jakineraztea dagokio ordezkari hauei, beste zenbait funtzioren artean.

Artículo 20.

El Ayuntamiento inspeccionará anualmente el estado del camino y en caso de observar deterioros, podrá resolver sobre la no concesión de ayudas para la reparación en tanto se reponga el camino en cuestión a su estado normal y razonable.

Artículo 21.

La conservación regular de los caminos se regirá por el sistema de "auzolan" a cuyo fin el Ayuntamiento habrá de aportar los materiales necesarios (piedra, hormigón, tubos, todo-uno, etc.) y los usuarios beneficiarios el trabajo comunitario.

Artículo 22.

Si alguien no pudiera tomar parte en el "auzolan" deberá enviar un sustituto, o abonar en su caso 3.000 pesetas por día. La cantidad recaudada por este procedimiento servirá para crear un fondo comunitario para sufragar los gastos derivados de los caminos.

Artículo 23.

El Ayuntamiento designará a una persona que actuará de intermediario entre el Ayuntamiento y los usuarios-beneficiarios del camino.

Artículo 24.

Anualmente, y dentro del mes que previamente se acuerde, los beneficiarios-usuarios designarán un representante que actuará como tal ante la Administración Municipal. Entre otras funciones, a éste le corresponderá poner en conocimiento del intermediario municipal todas las cuestiones suscitadas.

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

25. Artikulua.

Erantzunkizun administratiboa izango dute ondorengo ataletan sailkaturiko hausteak egiten dituztenek:

1. Hauste arinak:

a) Erregelamendu honen 4 eta 5. atalak jarraituz, baserri bideen erabilera berezia behar den baimenik gabe egitea.

b) Fidantza Uztea ataletan dionaren arabera, iharduera hasi aurretik fidantza ez uztea.

2. Hauste larriak:

Aurreko ataletakoak eta gainera kalteak eragin badira.

26. Artikulua.

Udalak ordenantza honetako aginduekiko hausteak zigortzeko prozedurari hasiera emango dio ofizioz edo partikularrek egindako salaketaren ondorioz.

Errepidearen eta bertako osagaien aurka burututako egintzak delitu edo falta izango daitezkeenean eskumena duen Aginte Judizialari dagokion txostena igorriko zaio eta honek ebazpena ematen ez duen bitartean ez da salaketa prozedurarekin jarraituko.

27. Artikulua.

25. artikukuluan aipatzen dituen hausteak eragindako kalte edo hondaketak, kasua balitz, ondorengo isun hauekin zigortuko dira.

INFRACCIONES Y SANCIONES.

Artículo 25.

Aquellos que cometan infracciones como las tipificadas seguidamente incurrirán en responsabilidad administrativa:

1. Infracciones leves:

a) Desarrollar una utilización especial de los caminos rurales sin poseer autorización para ello, según establecen los artículos 4 y 5 de este Reglamento.

b) No depositar la fianza antes de proceder al inicio de la actividad, tal como se establece en el apartado “Depósito de la fianza”.

2. Infracciones graves:

Las del apartado anterior si además han ocasionado daños.

Artículo 26.

El Ayuntamiento iniciará el procedimiento de sanción de las infracciones a esta Ordenanza por oficio o por denuncias realizadas por particulares.

Cuando las acciones cometidas contra los caminos y los elementos de los mismos constituyan delito o falta se remitirá un informe al Poder Judicial competente, y no se continuará con el procedimiento de denuncia mientras aquél no emita resolución.

Artículo 27.

Los daños o desperfectos ocasionados por las infracciones relacionadas en el artículo 25 se sancionarán con las siguientes multas:

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain

-Hauste arinak, 5.000 ptako isuna.

-Hauste larriak, 5.000 tik 50.000 pta. bitarteko isuna.

Lehen aurrikusitako isunez aparte, arauhausleak Udalari errepidean eragindako kalteen eta bideetan egindako matxurengatik erabiltzaileei sortutako istripu edo bestelako eraginen zenbatekoaren kealteordaina emango dio.

- Infracciones leves, multa de 5.000 pesetas.
- Infracciones graves, multa entre 5.000 y 50.000 pesetas.

Al margen de las multas previstas, el infractor abonará al Ayuntamiento la indemnización correspondiente a la cuantía de los accidentes u otras consecuencias originadas a los usuarios a raíz de los daños y desperfectos ocasionados en los caminos.

BUKAERAKO XEDAPENAK

28. Artikulua.

Udalak ahalmena du erregelamendu hau interpretatzerakoan sor litezkeen edozein arazo konpontzeko.

29. Artikulua.

Bide eta pista bakoitzaren historioa errespetatuarren, Ordenantza honek ez ditu bide bakoitzeko aspaldidaniko ohiturak estaliko.

30. Artikulua.

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen denetik kontatzen hasi eta hamabost egunetako epean indarrean sartuko da, bere aldaketa edo derogazioa erabakitzen ez den bitartean indarrean jarraituko duelarik.

DISPOSICIONES FINALES.

Artículo 28.

El Ayuntamiento queda facultado para resolver sobre cualquier laguna que surgiere en la interpretación de la presente reglamentación.

Artículo 29.

Con el fin de respetar la historia de cada camino y cada pista, esta Ordenanza no hará desaparecer las costumbres ancestrales de cada camino.

Artículo 30.

Esta Ordenanza entrará en vigor a los quince días de la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, continuando en vigor hasta que no se decida su modificación o derogación.

PAPER EKOLOJIKOAN INPRIMATUA

USURBE Inprimategia - Beasain